

## **8-BALIABIDEAK**

### **8.1 BALIABIDE ARLOAK**

Lau arlo artuko dira kontuan gure enpresa behar den bezala funtziona dezan.

#### **8.1.1. BALIABIDE FISIKOAK**

##### **8.1.1.1. LANTEGIA**

Baliabide fisikoetan, lantegia izango da garrantzitsuena gure kasuan eta bestalde, SmartBina eraikitze materiala ere izango lirateke beharrezkoak gure proiektua aurrera eramateko. Bestalde, zakarrontziak izango dituen sistema elektronikoko guztiak behar bezala programatzeko materialak.

Lantegia Gasteizeko kanpoaldean (poligono industrialean) egongo da ezarrita, berste enpresa askorekin batera. Gainera, gure produktua egiteko adina leku aurkitzea ez da zaila izango, hainbat eta hainbat erikin utsik eta erabili gabe daudelako. 1000 m<sup>2</sup> inguru dituen lantegi bat aurkitzea izango litzateke onena, SmartBina kalitate on batean aurrera ateratzeko adina. Enpresaz gainera, momentuan erabiliko ez diren materialak edo bestelako tresneria gordetzeko hainbat gela ere izan beharko genituzke.

Poligono industrialean jartzearen arrazoi bat giroa da. Mugikortasuna erraza da, eta ez da trafiko gehiegizkorik pasatzen, beraz produktuen garraioa errezagoa izango litzateke. Gainera, oso ondo komunikatuta dago, autopista oso hurbil daukalako eta baita Forondako aireportua ere. Beraz, produktuak beste hiri edo herrietara eraman behar baldin baditugu, errezagoa izango litzateke honen bidez.

Lantegian 4000€ inguru gastatzea onena izango litzatekeela uste dugu, lantegia erosten eta gure beharretara egokitzen, lana errez, eroso eta egoki egiteko.

### 8.1.1.2. MATERIAL EGITURAKETA

SmaretrBina eraikitze materiala, eskariaren arabera eskatuko ditugu. 10 SmartBin egiteko eskaera egiten badigute, beste zakarrontzi batzuen ordez jartzea egokituko litzateke, beraz zakarrontzi zaharrak hartu, eta SmartBinak egiteko erabiliko genituzke. Horretaz aparte, 10 sentore eskatuko genituzke ( bat SmartBineko) eta lau ateen funtzionamendu automatikoa baimentzen duten zirkuitoa egiteko materiala ere. Metalezko pieza handi bat eskatu beharko litzateke zakarrontzi bakoitzeko ( pieza horretatik lau atek ateratzeko) eta ranpa osatuko duen material irristakor plaka bat ere zakarrontzi bakoitzeko. Bat bukatzen dugun bakoitzean, zuzenean entregatuko

dira, horrela gure lantegian espazioa aurreztuko genuke. Gainera, hainbat ordenagailu beharko genituzke lantegietako ofizinetan izateko eta hauen bidez, eskakizunak, sare sozialak eta web-gunea bideratzeko. Honetaz gain, 1000€ inguru gastatuko genituzke altzarietan, guztia ahal den gehien ordenatzeko eta garbi mantentzeko, baita bizitasun piska bat emateko lantegiari.

### 8.1.2 BALIABIDE INTELEKTUALAK:

Baliabide intelektualez ahalbidetuko gara gure bezeroen eta gure enpresaren arteko harremanak sendotzeko. Internetek eta sare-sozialek gaur egun daukaten garrantzia ikusita, guk ere erabiltzea erabaki dugu. Horretarako, hurrengo zerbitzuak eskainiko dizkiegu bezeroei:

#### 8.1.2.1. WEB-ORRIA

Gure web-orriaren bitartez ( <http://smartbin.eus> ), bezeroek gurekin kontaktuan egoteko eta gure proiektuez gehiago jakiteko aukera emango zaie.

Hasiera orri bat izango du, non gure enpresari buruzko informazio basikoa agertuko den: kokalekua, fundazioa, zergatik eta zertarako egiten ditugun gure proiektuak eta nortzuk garen hauen sortzaileak.

Gero, gure proiektu guztien berri emango duen beste zati bat egongo da, non SmartBin-ari buruzko informazio guztia emango den eta honen eskaerak nola egin daitezkeen berri emango den. Bestelako proiektuak egiten diren eanean, orria eguneratzen joango gara, gure bezeroek informazio guztia izan dezaten.

Beste apartado bat egongo da, “Elkarteak” izenekoa, non gurekin kolaboratzen duten enpresen izenak agertuko diren, hauen informazio basikoarekin.

Web-orri osoan zehar, gure kontaktuen berri izango dute beti orri bakoitzaren azpikaldean. Hauen artean emaila, telefonoa eta gure kokalekua egongo dira, non behin klikatuz, Google-maps-en aurkitzeko aukera izango dute.

Web-guneko beste zati garrantzitsu bat “Iritzi eta Proposamenak” izeneko zatia izango da, non gure bezeroek gure produktuen iritzia eman ahalko dute eta baita beraien proposamenak aipatu, guk hauek kontuan izateko eta etorkizuneko proiektuetan kontuan izateko.

Azkenik, “Inkesta” atal bat eskainiko diogu ere publikoari, gure bezeroak nolakoak diren jakiteko eta honen arabera gure orria eraldatzen joateko.

#### 8.1.2.2. SARE SOZIALAK

Enpresa garrantzitsu eta ez hain garrantzitsuek erabiltzen dituzte sare-sozialak eta gu ez gara gutxiago izango.

Facebook, Twitter eta Instagram gehien erabiltzen direnak direla ikusita, guk kontu bat irekiko dugu bakoitzean. Modu honen bidez, adin desberdinetako jendeari gure enpresan egiten diren proiektuetaz jakinaraziko dugu eta beraiek parte hartzen animatu ere. Bezeroek dituzten galdera eta proposamenak sare hauen bitartez ere planteatu ahalko dituzte eta bide batez, guk hobetzeko aukera izango dugu, beraien zalantzak argituz eta proposamenak kontuan hartuz, web-gunean egingo den antzera. Gainera, baliabide hon bat da Twitter eta antzerako sare-sozialak erabiltzea, mugikorrez erraz erabiltzen direlako eta web-gunea baino errezago erabili ahal direlako. Gu ezagutaraztera emateko modu errez eta eraginkor bat dira sare-sozialak.

### 8.1.3. GIZA BALIABIDEAK

Gure enpresan lan egingo dute pertsonak funtsezkoak dira SmartBinaren eta etorkizunean egingo diren proiektuetan, hauek baitira proiektu hauek guztiak aurrera eramaten ahalbidetzen dituztenak. Gure enpresan zuzendari bat egongo da, honekin batera gerente eta produkzio zuzendaria, hau da, salmentaz eta lantegian gertatuko denaz arduratuko dena eta azkenik finantza zuzendari bat eta diru-kontuez arduratuko den beste arduradun bat. Honen bitartez,

enpresa behar den bezala antolatzea eta bideratzea lortuko dugu. Arduradun hauetaz a parte, beste 3 edo 4 langile inguru kontratatuko genituzke, SmartBinaren piezak eta sistema informatikoa montatzeko. Langile gehiago behar izanez gero, kontratu tenporal bat egingo liezaieke. Pertsona hauek gustura eta ilusioarekin lanera joatea da gure helburu nagusia. Horretarako, langileentzako gune eta atsedeen gela bat egingo genuke, beraien artean erlazionatu ahal izateko eta giro onena izateko beraien artean.

#### 8.1.4. FINANTZA BALIABIDEAK

Gure enpresa martxan jarri ahal izateko, Europako gobernuari subentzio bat eskatuko genioke. Honek, gazte-ekintzaileei diru subentzioak eskaintzen dizkie, eta hortaz, guk hori eskatuko genuke.

Bestetik, Laboral kutxari mailegu bat eskatuko genioke, hasieran makinarian, langileetan eta bestelakoetan izango ditugun gastuak urrera eraman ahal izateko. Gu lau bazkideen artean ere dirua jarriko dugu, enpresa hasteko diru nahiko izan dezagun. Bakoitzak enpresan jarritako diruaren arabera, laneko postu altuago edo baxuago bat izango luke. Diru gehien inbertitu duena zuzendari orokorra izendatuko genuke,

ondorengoa enpresaren gerente, hurrengoa salmenta zuzendaria eta azkena finantza zuzendaria.

## 8.2. APLIKAZIO MODUAK

Gure enpresan, externalizazioa izango da erabiliko den modu nagusia. Kanpoko enprekin ezarriko ditugu harremanak, guztien onurarako izan daitezzen iritsiko garen akordioak. Hirietako garbiketekin edota hiriaren ongizateaz edo zaborra berrerabiltzen dute enprekin harremanetan jarri beharko ginateke, gure produktua ezagutarazteko eta bide batez gauzatzeko. Honekin enpresak izango dituen kostuak murriztea lortuko ditugu.

Gainera, SmartBina den bezalako produktuak beti izango dira beharrezkoak hirietan eta asko erabiltzen dira. Bestalde, gure hirien garbiketetan oso erabilgarriak izango dira, hortaz produktu erakargarri bat izan liteke beste enpresa motentzat.